

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAREN HITZALDIA G+20 ESTRATEGIAREN AURKEZPENA

Donostia, 2010ko uztailaren 1a

Egunon guztioi,

Gero eta beharrezkoagoa da etorkizun zalantzarri baterako prestatzea. 2020-2030 ikusmuga oso urrun dagoela dirudi, urrunegi orduan gertatuko denaz kezkatzen hasteko, are gehiago orain bizi dugun aparteko egoera honetan. Baina etorkizunari ezin diogu uko egin, ez dugu nahi, egia esanda, hor bertan baitauekagu.

Pentsa dezagun zein gertu dagoen 1990. urtea, duela hogeitun urte, eta zenbat gauza gertatu diren. Mundua asko aldatu da, gainera, laurogeita hamarrekoko hamarkadaren hasieran ere krisialdi batetik ateratzea lortu genuen. Aldatu egin dira harremanak izateko moduak, aldatu egin da gizartea gaur egun hobeto informatuta baitago eta zorrotzagoa baita, aldatu egin da gure egitura ekonomikoa... Gertatu diren aldaketetako asko nekez imajina zitezkeen duela bi hamarkada eta, hala ere, egokitu egin gara aldaketa horietara.

Gipuzkoa bezalako lurralde txiki eta konplexu batek etorkizunerako prestatu nahi izatea ez da luxu bat, behar bat baizik. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007-2011 legealdian lagundu nahi izan du gure kultura politikoa eraldatzen edo, hobeto esan, erakundeen funtzionamendua kultura politiko berrira egokitzen. Horretarako lan eskema berri bat sendotu nahi izan dugu epe labur-ertain-luzeko dinamika estrategikoa ezarriz.

2007-2011 Kudeaketa Planaren bidez gure jarduera guztiak modu koherentean txertatzea eta eraginkortasunez bultzatzea lortu nahi izan da, koordinazioa eta elkarlana indartuta lan eginez, ez bakarrik oraingo gobernu taldeko arduradun politikoaren artean, baita

erakundeetan parte hartzen duten guztien artean ere. Beraz, Kudeaketa Planaren asmoa da gauzatuko diren helburuak eta estrategiak partekatzea ahalbidetuko duen tresna bilakatzea, ziur baikaude legegaldi batek hartzen duen epe laburrean lana kudeatzen eta eguneroko jardueran bideratzen lagunduko duen tresna dela.

Txanponaren beste aldean, Gipuzkoa+20 prozesuak epe luzearen ikuspegia sartu nahi izan du, Gipuzkoaren etorkizunari buruzko proposamena eginez gizaritari. Era berean, horrekin kultura politiko berri batera eta gizarte berri batera egokitu nahi izan dugu, gipuzkoarren gizartera hain zuzen ere, gero eta konplexuagoa dena eta aurreikusten zailak diren ziurgabetasun gehiago dituen. Ziurgabetasun horiek, hain justu, behartzen gaituzte etorkizunean etengabe pentsatzera, ez etorkizuna iragartzeko asmotan, baizik eta prestatuta egon ahal izateko etor daitezkeen aldaketen aurrean, aurreratu ahal izateko eta lehenbailehen detektatu ahal izateko teknologia, gizarte, ingurumen, ekonomia eta bestelako alorretan eragiten diguten joerak.

Bi tresna horiek, Kudeaketa Plana eta Etorkizuneko Estrategia, legegaldi honetatik haratago finkatu nahi ditugu, gai hauetan sakonduz:

- Herri erakunde guztien arteko lidergo partekatua, lankidetzaren bultzatzearen.
- Herri erakundeetan eta sektore pribatuaren arteko elkarlana, lurraldearen erronka estrategikoei elkarrekin erantzutearen.
- Herritarrek politika publikoetan parte hartzea eta haiek inplikatzeko.

Baina 2030. urtera begira Estrategia bat izateak ez digu berez arrakasta ziurtatzen. Lehenengo, ez duelako dokumentu aldaezina izan nahi, inspiraziorako erreferentzia baizik, bai lurraldean

diharduten herri erakundeentzat bai Gipuzkoako eragile sozial eta ekonomikoentzat; horrenbestez, denborarekin aldatu egingo da eta, zaintza lan gogor baten bitartez, nahitaez hartu beharreko erronka berriak eta egin beharreko eraldaketa berriak bistaratuko dizkigu. Bigarren, arrakasta lortuko delako gai baldin bagara proposatzen dituen eraldaketa handien inguruan akordio sozialak adosteko. Gure erronka izango da estrategia horren gainean eraikitzea eta estrategia horretatik abiatuta proiektu eta ekimen publiko nahiz pribatuak sustatzea.

Arrakasta ez da izango, inondik ere, 2030. urtean egiaztatzea ez genuela hutsik egin 2010. urtean esandakoan. Arrakasta izango da 2030. urtean egiaztatzea 2010. urtean, gizarte gisa, indartsuago egin ginela etorkizunari aurre egiteko, eta egiaztatzea aldaketa handien aurrean gai izan ginela gure identitate ezaugarriei, gure komunitate baliabideei eta Gipuzkoan bizi direnentzat nahi ditugun ongizate sozialari eta pertsonalari eusteko.

Hori bai, ez zait ahazten Foru Aldundiak gaur egun duen asmo nagusia dela gipuzkoarrei modurik hoberenean laguntzea gaur, 2010eko uztailaren 1ean, dituen premia handieneko zailtasunak gainditzeko. Asmo horrek berak eramaten gaitu begiak jaso eta 2030. urteari begiratzera, urrutira begiratzeko jakin ahal izango baitugu ahalik eta azkarren zer topatuko dugun bidean.

G+20 prozesuak ekarri duen taldean ikasteko ariketa hori hausnarketa hutsetik haratago joaten ahalegindu da eta ekintzara pasa da proposamen bat eginez. Hain zuzen ere, gaurko ekitaldi honetan proposamen bat aurkezten diogu gizarteari. Gipuzkoa indartzeko konpromisoa izan nahi duen proposamena, gure etorkizunaren inguruan adimen kolektiboa sortuz. Estrategia ireki bat, bihar bertan aldaketak beharko dituen, aldaketak beti beharko dituen. Hori da eman nahi diogun balioa: inspirazio iturri izatea

eragile pribatu eta publikoek ikus dezagun non dauden gizarte modura aurrean izango ditugun erronka estrukturalenak, non jarri behar ditugun eratu nahi dugun gizartearekiko ditugun irrika kolektiboak, eta nola ekin behar diegun indartsuago izateko beharrezkoak diren eraldaketei. Garrantzitsuena da estrategia horrek balio izatea tentsioari eusteko, adi egoten lagunduko digun nerbioari eusteko, garai zaila bizi baitugu, ez baitakigu seguru noiz bukatuko den eta, batez ere, etorkizunak ezustekoak eta aldaketak ekarriko baititu.

Orobat, gogorarazi nahi nuke gure asmoa dela Gipuzkoa 2020-2030 estrategia erreferentzia izatea gure lurraldearentzat, baina baita ere gure ingurune hurbilenarentzat. Egin nahi ditugun eraldaketak ez daude gure esku bakarrik. Mundu konplexu batean bizi gara eta, esan dugunez, ziurgabetasun berriak sortzen dira etengabe, baina askotan horietan eragiteko gaitasun gutxi izaten dugu, ez bakarrik botere publikoek, baita norbanakoek, sektore pribatuak eta gizarte zibil antolatuak ere. Bestalde, konplexutasun horri aurre egiteko beste lurralde batzuen beharra dugu eraldaketa prozesu horretan laguntzeko. Ez da eskumen banaketako kontua soilik, baina hori ere bada. Oso ondo dakigu, adibidez, energia ereduaren aldaketak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenak gainditzen dituela. Eta hori horrela izanik ere, lehenengo leerroan jarri nahi dugu eraldaketa horri aurre egiteko, gure ahalmenen neurrian. Horregatik nion Gipuzkoa 2020-2030 estrategia guztientzako erreferentzia izatea nahi dugula: udalarentzat, Diputazioarentzat, Eusko Jaurlaritzarentzat, Estatuarentzat eta Europar Batasunarentzat. Eta horrexegatik ere Estrategia da Gipuzkoak Autonomia Erkidego osoari eragiten dioten eraldaketei egiten dien ekarpena. Adibidez, Eusko Jaurlaritza edo eragile pribatuak bere autonomiaren barruan erantzule diren kasuetan ere, Gipuzkoak haien aliatu izateko eskaintza egiten du. Horrela egin ezean huts egingo baikenuke.

Ondo ulertu nahi izan dugu Gipuzkoak nola funtzionatzen duen eta Gipuzkoari nola eragiten dion munduan gertatzen denak, baina 2010-2030 Estrategia pentsatu da bere ingurunearekin ondo uztartuta egongo den Gipuzkoa baterako. Eta proposatzen diren eraldaketa hauetan guztietan, funtsezkoa izango da eragile pribatuei eskainiko zaien babesa, gure produkzio sarea eraldatzen laguntzeko itzala emango baitzaie; funtsezkoa izango da, baita ere, gure unibertsitate sistema sendotzeko bultzada; eta, halaber, Gipuzkoa lurralde aitzindaria bihurtuko dugu erronka demografiko berriei erantzuteko gaitasunean edo eredu energetikoaren birmoldaketa bezalako erronketan.

Ekitaldi honekin, alde batetik, ospatu eta goraiatu nahi dugu zuetako askok -pertsona nahiz erakunde- egin duzuen , G+20 prozesuari, Aldundiaren Bulego Estrategikoari lagunduz, berebiziko bultzada emateko balio izan baitu. Eta, bestalde, ospatu nahi dugu, baita ere, aktiboak izateko guztiok hartu dugun konpromisoa: aktiboak bai hausnarketan bai eta ekimen zehatzetan ere. Zuen ahaleginak eta konpromisoak egiten baitute posible gaur planteatzen ditugun sei eraldaketak eta, orobat, etorkizunean gure buruari jarriko dizkiogunak. Sei eraldaketa horiek ez baitaude erakunde publikoen mendean bakarrik; ez horixe: Gipuzkoako gizartea gizarte heldua da, bere burua antolatzen dakiena eta egitasmoak aurerra ateratzeko gauza dena. Jakina, ordea, erakunde publikoek gure gain hartzen dugu epe labur eta ertainera gure eginahala berrindartzeko, etorkizuna gaur eraikitzen ari garela jakinik. Baina, izatez, eraldaketa horien eragile nagusia Gipuzkoako gizartea izango da, Gipuzkoako herritarrak, pertsonak. Estrategia bat edukitzeak bakoitzaren nahiari euskarria ematea bermatzen du, gutako bakoitzak gure jardun esparruan eta erabakimenean jartzen ditugun helburu zehatzei oinarria ematea, Gipuzkoa bizileku gero eta hobea bihurtzeko ilusioari hegoak ematea.

Amaitu aurretik, ideia garrantzitsu bat azpimarratu nahi dut, nire iritzirako funtsezkoa den ideia bat: Baloreak; izan ere, beti etxeko marka izan ditugun baloreak -lanerako ahalegina, konpromisoa, elkartasuna, arriskatzeko kapazitatea- indartsu mantentzen jakin behar dugu, dugun baliorik handiena baitira. Eta badakigu nondik doazen gauzak. Badakigu gaur egun, han eta hemen, indarra hartzen ari direla bestelako "sasi-baloreak": berehalakotasuna, izpiritu akritikoa, arinkeria, arrazionaltasun eza eta abar. Horregatik, 2010. urteari begira irismen handiagoko edo txikiagoko helburuak jarri diezaizkiokegu gure buruari, beharrezkoak diren eraldaketa hauetan lagundu dezaketen proiektuetan ere ausardia handiagoarekin edo txikiagoarekin jokatu dezakegu, edo mundua zein norabidetan doan bereizten zehatzagoak edo lausoagoak izan gaitezke.. Baina, inolako zalantzarik gabe, gauza bat behintzat ezin dugu egin, ez dugu egin nahi: gureak ditugun balore horiei uko egin. Horiek baitira, berez, Gipuzkoaren apustu estrategiko nagusia.